

Zehar bideak

Erdibidetik hasi. Hasta cierto punto. Tomas Gutierrez Aleak bildu filmearen lehen soinuak, *begoak ebaki banizkio*: kitararren soka arinkiro ximikatua, libertate behar-nahi go-riaren deiadarra. Mirta Ibarra oso sos ederra zen, matxismoaren salatzeke 1983an Kuban bihurtikatu filme harrigarri bezain samur hartan. Miarritzeko zine iberiar-latinoamerikar filme-jaialdi ohian aurkeztua. Karaibetako eguzkia jostatzen zen kitararren biluzi sakonarekin. Euskal herrian ere gizonekilan zerbait antzeko gertatzen zela susmatzen genuen jadanik, baina kitar-soken ximikatzalea ez genuen oraindik de visu ezagutzen. Zinta eta biniliotan baizik.

Mikel Laboaren gure ezagutza beraz “plastikozkoa” zen. Familian bageneukan ama zenaren anai bat Parisen bizi zena –ondikotz halabeharrez...– eta harek bere illobei –guri– garai haietan ateratzen ziren iraupen-ttikiko diskoak bidaltzen zizkigun baten edo bestearen urtebetetzea zela zio. Oparietan bazeuden Goiztiri saileko disko azal gorridun handi eta gaurkoan kasik mitikoak, eta Mikel Laboak Bertold Brecht abesten zuenekoak. Erraitekoa dugu, etxean telebistarik ez zegoela arras berant arte, eta osaba horrek berak 1968ko eguberritan tokadisko bat eskaini zigula. Loriatzen ginen Lete, Laboa, Lertxundi –herri honetako hiru L erraldoiak– entzuten eta New

Yorkeko pobreen egoera latza genezagukan Santimamiñako eresiarekin batera.

Geroxeago, udak lanean euskararen erakasten edo artokukuletan iragan ondoan, diru piskat bagenuen zinta eta hiztegi zenbaiten erosteko. Eman zuen denbora baina heldu ginen zinta-irakurgailuan *Laboa bat eta biru* hura behatzera, eta hango kantuak oro gogoz ikastera. Aldi hortan, Laboaren kantatzeko molde samina Josean Artze poetaren munduarekin josten zen, De Monzonen hitzekin eta Arestiren harrizko olerkiekin. Azkenik konpaktoaren ordua jin zelarik, egin genuen lehen gauza *Laboa bat eta biru* molde berrian eskuratzea izan zen, hereneguneko aditasegina teknologia modernoeri egokitzeko asmoz.

Mikel Laboa kantari geografikoa zela nabaritzen genuen, Benito Lertxundiren gisa; nehoiz bisitatuak ez genituen lekuak aipatzen zituzten biek, leku haietara preseki bideratzeko gutizia piztuz: Orbaizetako arma-olha, Baztan, Goizueta, Urtsua Udan noski, Bostmendieta, Lakarri-Buztanobia, Andozeko ibarra, Lekeitio, Erribera eta horrelako mila adibide. Leku horietara abiatu gara kantak buruan kokaturik, bidai-sakurik gabe. Bestalde, tokietaz gain, Mikel Laboak Goiztirin zeuden abestiak egungoturik emaiten zizkigun: egia erran, Goiztiriko diskoak higituegiak ziren belarrien ez kolpatzeko. Eder zen deus ez zegoen aro haietan ohartzea tradizioa, lurraldetasuna eta oraingotasuna nola transmitituak ziren, gaurko medioen bitartez.

1982tik hara, iparraldean irratiak sortu ziren eta etxeko zinta-irakurle edo toka-diskoetan kasik intimitatean gozaten genituen aireak plazara jalgi ziren. Haur eta gaztaroan ezagutu edo jasan genuen girotik ordukoa oso desberdina zen: gutien uste zenean, soinu-uhinek gure hizkuntza erabiltzen zuten, solas eta kanta, Mauletik Hendaiarainoko mila marra uhargi ehainduz herriaren basamortuan. Euskal Herria, 1976-1978 urteetan barna Errobirekin jorratzen hasi rockaren

aieruak labantzen zuen eta jadanik Itoiz Aiherran, Hertzainak eta Zarama Donibane-Garazin entzuten genituen, Oskorri edo Benito Lertxundiz aparte. Musikak, batez ere zuzenean, ardurenean ikastolen eskutik, edozein maneretan erotzen gintuen, hainbeste non gure geroen segurtatzea bera ahanzten zitzaigun. *No future/No fun* belaunaldian hogeitau urteak "ospatu" genituenak ginelako agian.

Oraindik egoiten ahal gara orenak-orentegi kantariren baten aditzen: noizean behin pentsatzen dugu abestu hitzek gaituztela aztoratzen, eta hitzen zerbitzuan baizik ez daudela musikak. Halaz gustatzen zaizkigu a capella eman kantoreak, elizetan bezainbat ostatu zokoetan, kitarra xoilaz lagunduak edo rock gogorraz troxatuak. Aitzineko amodioei leial egon beharrez ezin ditugu huts egin Su Ta Gar edo Mikel Laboa hemendik pasatzen direlarik. Sorotan Bele edo Xabier Lete. Zarama, Exkixu edo Mikel Markez. Musika bizitzaren ikurra bailitzan. Eta adibideak zerrenda genezazke. Leku bat, kontzertu bat. Herriko bide zeharrak melodiaz melodia azken mugetaraino eraman gaitu.

Aipatu dugu musika bizitzaren ikurra lizatekeela. Bizitzaren eta iparraldean, euskararen ikurra ere izan litekeela erants dezakegu: ikastolen borrokak, gure alderdi politikoen mitinak, euskararen inguruko besta ttiki edo erraldoiak korrika demagun, musikaz blai etorri zaizkigu. Musikaz eta edariz itorik bixtan dena. Larrunbatero herri batean edo bestean Woodstock umilak jastatu ditugu eta kontzertu oroigarriak urteen zedarritzeko baliatzen dituzkegu. Itoizek ondar kontzertua Lekuinen hedatu zuen urtean joan nintzen Parisera... eta Mikel Laboak zazpi mende ixilik gelditurik, Garazin kantatu zueneko 1984ko urtea zaila izan zen iparraldearentzat. Alabaina, Donibane Garaziko jai-alaiak –gure Bercy edo Zenitha?– jendez mukurru bete zen 1984ko ekain bukaerako gau bero hartan. Arrats handia izan zela gogoratzen gara. Biharamonean Pizkundeak deitu manifa iragarria zegoen Baionan. GALEk mugaz bestalde honetako karririk odoleztatzen zi-

tuen. Miterrand jin zen bisitaz eta lehen extradizioak gertatu ziren. Nola ahantzi orduan ireki zauriak dagoeneko sendatu gabeak daudelarik?

Ordea Garaziko gauean mirakuilua egin zen. Gutariko frangok lehen aldikoz entzuten genuen Mikel Laboa zuzenean eta ixiltasun harrigarria zebilen kantaria taulagainera igo zen minutuan. Miresmenaren eta errespetuaren arteko zerbait. Hatsa bahitua. Mitoa jendeen aintzinean. Mikel Laboak kitarra hartu zuenean, eta lehen notek jaialairen eremua xoratu zutelarik, Jondonaneko suak piztu ziren gure baitan, bekaizgoaren eta bakardadearen egur metatuak oro errez. Arimaz ezagutzen genituen abestiak airatu ziren, kitarraren eta pianoaren konpainian, Artze anaien txalapartak lurraren zola inarosten zuen artean. Emanaldia bukaturik Mikel Laboa elestatu genuen eta mitoaz gaineko *norbait* kurutzatu ere, jai-alaieko aldageletan. Ontsa edan ondoan –gure kulturari buruzko zerga ordaindu erran nahi dut...– etxeratu ginen gau berezia pasatu genuelako iduripenarekin. Argazkiak eta irratian langile zen lagunari otoika eskatu zinta hor dauzkagu lekuko.

Herri zinez arraro batetakoak gara. Plazetan eta soinu aldetik nekez orekatzen diren geletan, maiz edo kasik beti “baldintza kaxkarretan” ixurtzen zaizkigu olerkariak lerrokatu hitzak eta kantariak moldatu musikak. Halako harreman ezti bat sortzen da haien eta gure artean, hurbil senditzen ditugu, bai gure kezketarik eta bai gure plazeruneetarik. Nola onhartuko genuke olerkariaren gutarik urruntzea? Olerkariaren eleaz –Artze, Atxaga, Sarrionandia, Lete eta gaineratikoak– hitzak desjabetua izaitzea? Herri gisa hiltzea bezala lizateke. Halatan, hormetan eratxeki afitxetan seinalatu kontzertu batetara abiatzen garenean, goizurrakoan itseskatzen den errepettitta bezain zoriontsuak gara. Eta hori da musikaren helburuetarik bat: texto ederrak musika ederrez apaindurik behatzean zoriontsu izatea.

Mikel Laboak, hemengo kantari askoren pare, helburua lortzen du, zorionak eta kezkek nahastekatuz. Entzunikuste-

koa da nola eskaintzen digun taulengainean *Komunikazio-Inkomunikazio* segida errealista, mistikoa, axolagabea, ironikoa, samurra eta latza denbora berean. Musika motak, mintzairak eta itxurak bildu XX. mendeko trageriaren gorabeherak azaltzea. Kontzertuak komunikazio bitxien biltokiak dira gure ustez. Garazin eman *Komunikazio-Inkomunikazio* oroitzen dugu, Lertxundik Amikuzeko Behaizen hedatu *Ni olentzero naiz* eresia, Hertzainak Donazaharren mailukatu *Bakean utzi arte* eta Zaramaren *Gasteizko gauak* Makeako plazan. Melodiak buruzokoetan kokatzen dira, bilduak diren elementuak errespetuz baino gehiago, maitasunez eraiki kultur ekoizpenak direlako guziak menturaz.

Musika motak oro gustatzen zaizkigun eran, esperimentala ohidurazkoarekin uztartua behatzea laket zaigu, tradizioe xoila desagertzera kondentatua baita bestela. Mikel Laboak lan hori konplitu du, urteak joan arau eta azken diskoraino bixtakoa da bide horretan gelditzeko xederik ez daukala. Lekeitio saila emendatuz doa, bizi garen herri arraro, maitagarri eta gataskatsuaeren ispilua bilakatuz. Ispilua eta galde-toki hau-tua. Lekeitio saileko zati bakoitza abotsaren ernetze iniazitikoaren eremua ditake eta heriotzaren premonizioa. Lehen eta azken hatsaren arteko epe laburra. Nostalgiaeren minaren mina. Ugaria eta bakuna. Gurea eta besterena. Egun batez Lekeitio saileko puskak bateratuko dituztenean, XX. mendeko sinfonia azalez kaotiko eta mamiz sakon den pieza osatuko dute. Iraunahiari omenaldia.

Diskarik diska, hastapeneko harien segidak orratzean sartu arren, 1985ko *Laboa 6* bihurgune handiaren gisa nabaritzen dugu. Lehenik, Laboak olerkari beretzat berriak abesten ditu, Atxaga, Sarrionandia edo Lete eta gero, zahartzeak dakartzkien pentsamenduak karrikatzen ditu Bezkoitzeko Otxalde bertsolariaren hitzen bitartez. "Zahar gazteen arteko parabola" hura ez da sekulan hain minberaki, hunkigarriki eskainirik izan. Seigarren zenbakiko diskoko joerak landu ditu La-

boak, aurten –1994ean– atera den 14 honetaraino. Hogeita hamar urteko kantari zeregina ospatu beharrez. Higadurarik ez da usnatzen, eta asperrezaren seinale dira oraino *Sorterriko koplak*, *Ikusten zaitudanean* edo *Bibotz*-en moldeko urrezko perlak. Bi garai izango dira Mikel Laboaren obragintzan: bata Josean Artze hitz zuhurreko poetarekilako kolaborazio estuarena, hots, Ez Dok Amairu taldearen eraginen ahitzearena orozbat, eta bigarrena sendimenduak eta hitzak deplauki papereztatzen dituzten olerkarien konpainiakoa, bi garaien tartea *Lekeitio* sailak josten diola.

Badu bospasei urte ez dugula Laboaren zuzenean entzuteko aukerarik eduki. Ordea, haraintzinean bezala, jarraitzen dugu gaurko zenbait kantarietan Laboaren kutsua antzematzen: Juan Carlos Perez adibidez, ari delarik “Bada etxe bat ondartzaren bukaeran...” deiadarkatzen, barkatu neologismoa, oso laboatarra dela iduritzen zaigu eta haren oihu-era “Nueba Yorken berrogeita bigarren karrikaren kantoiean...” hartarik arras hurbila da. Bestalde, *Txerokee* albumean nola, rock talde gogorrek Mikel Laboak musikatu olerkiak grabatzen dituztelarik nonbait ohartzen gara “katea ez dela eten”, musikak zaharrak eta gazteak bateratzen dituela, aiherkunderik gabe. Berritan entzun ditugu Sohütan Heriotza saldokoak “Maite ditut maite gure bazterrak” emaiten eta Mikel Laboaren oinarritzko kantaren emozio berdinez jabetu gara.

Hurrengo kontzertuaren haiduru gauden honetan, jarraitzen dugu ere, Mikel Laboaren abestiak bizitzako unei lotzen: noizetik noizera, kanta baten xuxurlatzea izan diteke doluminaren bideratzeko medio bakarra; amak itzaltzen zaizkigularik ezar dezagun, nola ihes egin “Gure ama hil da, lanak itota, lanaren amorioagatik hil da...” aitorpenetik urrun. Negarra begian. Kantu tristea bihotzean. Funtsezko gure sendimenduen ispilua bihurtzen delarik kantariaren baten obra, orduan kantari harek iharduteaz beste erremediorik ez dauka. Haren ixtorioa gure ixtorioaren zedarria da, mugabeko lur honetan.

Zer egingo dugu? Haurrek gure barneak inarrosten dituzten ahaideak ikasiko dituzkete, *Oi Pello Pello*-tik hasi *Komunikazio-Inkomunikazio* gogoz eta osoan hartu arte. Kulturaren transmisioa sentimental eredu ondarearen eskaintzetik iragaiten da. Klasikoak entzunaraziko dizkiegu: Laboa, Lete, Lertxundi, Itoiz, Hertzainak, Negu Gorriak eta besteak. Herri honen ahotsak jastatuz, guk gure heinean aurrera eraman lekukoa aurrerago helaraz dezaten.

Kxano Bada

Sendas y caminos

Empezar a medio camino. *Hasta cierto punto*. Primeras notas de la película de Tomás Gutiérrez Alea, *hegoak ebaki banizkio*: sonido de guitarra levemente rasgada, grito de la libertad deseada y exigida. Mirta Ibarra era una pieza muy hermosa para denunciar el machismo en aquella película tan extraña como tierna rodada en Cuba en 1983. Presentada en el Festival de Cine Latinoamericano de Biarritz. Con la desnudez y profundidad de la guitarra con la que jugueteaba el sol del Caribe. Habíamos empezado a sospechar que en Euskal Herria ocurría algo parecido con los hombres, pero todavía no conocíamos de visu a aquél que rasgaba las cuerdas de la guitarra. Sólo lo conocíamos en cinta y en vinilo.

Así pues, conocíamos a Mikel Laboa «en plástico». Había en mi familia un hermano de mi madre, ya muerta, que vivía en París —por necesidad, desdichadamente— y que mandaba a sus sobrinos —a nosotros—, en el cumpleaños de uno u otro, discos de corta duración de los que se publicaban en aquella época. Entre los regalos estaban aquellos discos grandes de cubierta roja de la colección Goiztiri, hoy casi míticos, y aquél en el que Mikel Laboa cantaba a Bertold Brecht. Hay que añadir que en mi casa la televisión no entró hasta muy tarde, y que aquel mismo tío nos regaló un tocadiscos en las Navida-

des de 1968. Disfrutábamos oyendo a Lete, a Laboa, a Lertxundi —a las tres enormes eses de este pueblo—, y sabíamos de la situación penosa de los pobres de New York a la vez que escuchábamos el canto de Santimamiñe.

Más tarde, después de pasar el verano enseñando euskara o desgranando maíz, tuvimos algún dinero para comprar algunas cintas y algún diccionario. Nos costó, pero llegamos a ver en el magnetofón aquel *Laboa bat eta hiru*, y a aprender todas las canciones de memoria. En aquella época, el mundo del poeta Josean Artze, las palabras de Monzón y los poemas de piedra de Aresti acompañaban al canto triste de Mikel Laboa. Y cuando llegó la época del compacto, lo primero que hicimos fue conseguir en el nuevo formato el *Laboa bat eta hiru*, con la intención de adaptar el placer de ayer a la tecnología de hoy.

Vimos que Mikel Laboa era un cantante geográfico, como Benito Lertxundi; ambos nombraban lugares que nunca habíamos visitado, y ambos despertaban en nosotros el deseo de salir cuanto antes a conocerlos: la fábrica de armas de Orbaizeta, Baztan, Goizueta, Urtsua (en verano, por supuesto), Bostmendieta, Lakarri-Buztanobia, el valle de Andoze, Lekeitio, la Ribera, y otros muchos lugares. Hemos viajado a esos lugares sin mochila, con las melodías en nuestras mentes. Pero, además de los lugares, Mikel Laboa nos ofrecería, actualizadas, aquellas canciones que ya estaban en Goiztiri; a decir verdad, los discos de Goiztiri estaban demasiado usados para que no nos golpearan los oídos. Era hermoso comprobar cómo se transmitían, con los medios de hoy, la tradición, la territorialidad y el presente.

A partir de 1982, empezaron a emitir algunas radios de Iparralde, y salieron a la calle aquellas melodías de las que gozábamos en la intimidad de los magnetófonos y tocadiscos de casa. El ambiente era muy diferente del que habíamos conocido, o sufrido, en la infancia y en la juventud: cuando me-

nos lo esperabas, las ondas sonoras utilizaban nuestra lengua, palabra y canción, y tejían redes de ondas invisibles en el desierto de este pueblo, desde Maule hasta Hendaia. El rock que empezaba a tomar fuerza con Errobi en los años 1976-1978 empezaba a pulir Euskal Herria, y ya escuchábamos a Itoiz en Aiherra, a Hertzainak y Zarama en Donibane-Garazi, además de Oskorri o Benito Lertxundi. La música, sobre todo en directo, las más de las veces de la mano de la ikastola, nos enloquecía, hasta el punto de que olvidábamos incluso asegurar nuestro futuro. Tal vez porque estábamos entre los que habían «celebrado» los 20 años en la generación *No future/No fun*.

Aún hoy podemos pasar horas y horas escuchando a algún cantante: a veces pensamos que son las palabras las que nos emocionan, y que la música está únicamente al servicio de las palabras. Por eso nos gustan los cantos a capella, sean en la iglesia o en el rincón de un bar, acompañados de una simple guitarra o envueltos en rock duro. Por lealtad a amores pasados no podemos faltar a Su ta Gar o a Mikel Laboa cuando pasan por aquí. Sorotan Bele o Xabier Lete. Zarama, Exkixu o Mikel Markez. Como si la música fuera símbolo de vida. Y podríamos continuar citando ejemplos. Un lugar, un concierto. Pequeñas sendas que de melodía en melodía nos llevan hasta la última frontera.

Hemos dicho que la música sería símbolo de vida. De la vida, y podemos añadir que, en Iparralde, podría ser también símbolo del euskara: la lucha de las ikastolas, los mítines de nuestros grupos políticos, las pequeñas o enormes fiestas alrededor del euskara, la korrika por ejemplo, nos han llegado repletas de euskara. Rebosantes de música y, por supuesto, de bebida. Cada sábado, en un pueblo o en otro, hemos disfrutados de humildes Woodstocks; conciertos memorables nos sirven para situar los años. Fui a París el año en que Itoitz dio el último concierto en Lekuine... y el año en que cantó Mikel Laboa, tras pasar siete siglos callado, en Garazi, 1984, fue difícil

para Iparralde. Sin embargo, el frontón de Donibane Garazi – ¿nuestro Bercy, nuestro Zenit?– se llenó a rebosar en aquella noche calurosa de finales de junio de 1984. La recordamos como una gran noche. Pizkundea había convocado una manifestación para el día siguiente en Baiona. El GAL manchaba de sangre las calles de este lado de la muga. Vino Miterrand a hacer una visita y, se llevaron a cabo las primeras extradicciones. ¿Cómo olvidar que las heridas abiertas entonces no se han curado aún?

Pero en la noche de Garazi ocurrió el milagro. Muchos de nosotros oíamos por primera vez en directo a Mikel Laboa; había un extraño silencio cuando el cantante subió al escenario. Entre admiración y respeto. Respiración contenida. El mito ante su público. Cuando Mikel Laboa cogió la guitarra, y las primeras notas embrujaron el frontón, se encendieron en nosotros las hogueras de San Juan, y ardieron, y se consumieron, las maderas de la envidia y la soledad. Las canciones que teníamos en el alma llenaron el aire en compañía del piano y la guitarra, mientras la txalaparta de los hermanos Artze sacudía y hacía temblar con sus golpes el escenario. Cuando terminó el concierto hablamos con Mikel Laboa, y, en los vestuarios del frontón, encontramos a *alguien* más allá del mito. Después de beber a gusto –es decir, después de pagar tributo a nuestra cultura–, fuimos a casa con la sensación de haber pasado una noche especial. Ahí quedan, testigos, unas fotos y la cinta que pedí, rogando, al amigo que trabajaba en la radio.

Pertenecemos a un pueblo realmente extraño. Las músicas creadas por los cantantes y las palabras escritas por los poetas nos llegan a menudo, o casi siempre, en «condiciones escasas», en plazas y en habitaciones de sonido poco equilibrado. Surge una relación entrañable entre ellos y nosotros; los sentimos cerca, cerca de nuestros problemas y de nuestros placeres. ¿Cómo podríamos aceptar que los poetas se alejaran de nosotros? ¿Que nos privaran de la lengua de los poetas –de Artze,

Atxaga, Sarrionandia, Lete y los demás—, que nos privaran de sus palabras? Sería tanto como morir como pueblo. Y así, cuando vamos a un concierto anunciado en carteles pegados en las paredes, somos como el reyezuelo que se despereza al alba. Y ése es uno de los objetivos de la música: ser feliz al oír bellos textos adornados de bellas melodías.

Mikel Laboa, como otros muchos cantantes de aquí, consiguiera ese objetivo combinando alegrías y penas. Hay que ver y oír cómo nos ofrece desde el escenario el espectáculo *Komunikazio-Inkomunikazioa*, realista, mítico, banal, irónico, tierno y duro al mismo tiempo. Diferentes estilos musicales, diferentes hablas y formas que expresan al unísono la tragedia del siglo XX. Los conciertos son, así nos parece, lugares donde se produce una comunicación extraña. Recordamos la canción *Ni olentzero naiz* de Benito Lertxundi en Behauze de Amikuze, aquel duro *Bakean utzi arte* de Hertzainak en Donazaharre y el *Gasteizko gauak* de Zarama en la plaza de Makea. Las melodías quedan en pequeños rincones de nuestras cabezas, porque todas ellas son, tal vez, más que elementos recogidos con respeto, producciones culturales construidas con amor.

Nos gustan todas las músicas, y nos gusta observar cómo se unen la experimentación y lo tradicional; si fuera de otro modo, la tradición estaría condenada a desaparecer. Mikel Laboa ha llevado a cabo esa labor; es evidente que según pasan los años, hasta el último disco, nunca ha tenido la intención de abandonar ese camino. La serie *Lekeitio* va madurando, hasta convertirse en espejo de este pueblo extraño, querido y problemático. Espejo y perfecto lugar de interrogación. Cada parte de la serie *Lekeitio* puede ser espacio de despertar iniciático de la voz y, premonición de muerte. El breve lapso de tiempo que media entre el primer y último aliento. Añoranza de nostalgia. Único y múltiple. Nuestro y de los otros. Cuando algún día se unan las partes de la serie *Lekeitio*, se habrá construido la sinfonía del siglo XX, caótica en la superficie y profunda en el interior. Homenaje al deseo de perdurar.

De disco en disco, aunque nunca se haya roto el hilo, vemos el Laboa 6 de 1985 como un punto importante de inflexión. En primer lugar, Laboa canta a poetas nuevos para él, Atxaga, Sarrionandia o Lete, y luego, con palabras del bertsolari Otxalde de Bezkoitze expresa sentimientos propios de la vejez: nunca se ha ofrecido de modo tan emotivo, tan estremecedor, aquella «Parábola de jóvenes y viejos». Laboa ha seguido trabajando las tendencias que aparecían en su sexto disco, hasta el disco número 14, publicado este año, en 1994. Como celebración de una labor de cantante que dura treinta años. No se aprecian señales de cansancio; el deseo de continuar es evidente en pequeñas joyas, en *Sorterriko koblak*, *Ikusten zaitudanean* o *Bibotz*. Hay dos épocas en la obra de Mikel Laboa: una es el de la colaboración estrecha con Josean Artze, poeta de la palabra prudente, es decir, la que terminó cuando se agotó la influencia de *Ez Dok Amairu*; y la otra es aquélla en la que acompañan a Mikel poetas que dan rienda suelta a sus sentimientos. La serie *Lekeitio* es la bisagra entre las dos épocas.

Son ya cinco o seis años que no hemos tenido ocasión de escuchar a Laboa en directo. Pero seguimos apreciando en algunos cantantes el curso de Laboa: cuando, por ejemplo, Juan Carlos Perez canta «Bada etxe bat ondartzaren bukaeran...», nos parece, y perdonen el neologismo, muy laboano; y su forma de gritar está muy próxima a «Nueba Yorken berrogeita bigarren karrikaren kantoian...». Por otro lado, cuando los grupos de rock duro graban los poemas musicados por Laboa, como en el álbum *Txerokee*, nos damos cuenta de que «la cadena no se ha roto», de que la música une, no separa, a jóvenes y viejos. Hace poco hemos escuchado en Sohüta al gupo Herioztza cantar «Maite ditut maite gure bazterrak», y hemos sentido la misma emoción que nos producía la canción original de Mikel Laboa.

Mientras esperamos el siguiente concierto de Laboa, continuamos identificando sus canciones con momentos de nues-

tras vidas: a veces, susurrar una canción puede ser el único modo de expresar nuestra condolencia; cuando nuestras madres se apagan, ¿cómo escapar de reconocer que «Gure ama hil da, lanak itota, lanaren amorioagatik hil da»^{*}? Lágrimas en los ojos. Canto triste en el corazón. Cuando la obra de un cantante se convierte en espejo de los sentimientos más profundos, ya no le queda otra opción que continuar. Su historia, en esta tierra sin límites, son los hitos que marcan la nuestra.

¿Qué hacer? Que aprendan los niños esas melodías que nos emocionan, que las aprendan enteras y de memoria, desde *Oi Pello Pello* hasta *Komunikazio-Inkomunikazioa*. La transmisión de la cultura pasa por el ofrecimiento de los modelos de nuestro acervo sentimental. Les haremos escuchar a los clásicos: Laboa, Lete, Lertxundi, Itoitz, Hertzainak, Negu Gorriak y los demás. Para que, disfrutando de las voces de este pueblo, lleven el testigo más allá de donde nuestro esfuerzo ha llegado.

ITXARO BORDA , 95

Traducción: Koro Navarro

* «Ha muerto mi madre/ extenuada por el trabajo./ Se ha muerto/ por amor al trabajo» (N.T.).